


Toureren gaineko laugarren liburua atera du Jon Arretxek

Protagonista Afrikara doa oraingoan, deportatuta, baina handik ihes egin beharko du, frenetikoki, eta Bilbora itzuliko

■ F. I.

DONOSTIA. Jon Arretxek beste liburu bat atera du, laugarrena, Toureren ibilerak kontatzen dituena. Aurrekoa plazaratu zuenean, iaz, ez zeukan oso argi sortarekin jarraituko zuen ala ez, baina ekin zion berriz ere, eta gainera jadanik buruan du bosgarren alearen nondik norakoa.

Nobela beltz petoak izan dira ora-



Jon Arretxe, atzo.

in arteko hirurak -'19 kamera' (2102), '612 euro' (2013) eta 'Hutsaren itzalak' (2014)-. Oraingo 'Estolda jolasak' hau ere beltza da, baina badu bidaia liburutik ere; hori ere Arretxek askotan landutako generoa. Kontua da liburu berri honetako parte bat Afrikan gertatzen dela, Bamakon, Espainiako poliziak hara deportatu baitu gure protagonista. Toure Burkina Fasokoa da, baina Espainiar estatuak ez du dena hain zehatz eta txukun egin nahi, eta Bamakon lagatzen du.

Zein da oraingo istorioa? Tourek hondoa jo du, ez du bizirik jarraitzeko adorea ematen dion ezer. Oinazeak itsutu egin du, eta mendekua baino ez du gogoan. Ez du

ondorioetan pentsatu, eta deportatu egingo dute, azkenean. Baina berak ez du imajinatu ere egiten zer duen zain bere jatorrizko Afrikan. Bere burua aurkituko du berriro

hau; oraindik ere ondo sentitzen da kultura eta gizarte hartan, nahiz eta dagoneko ez den etorkizun hobe baten bila joandako gizon bera. Alou, Aisha eta Yakouba pertsonaiekin hezurramitzen da afrikarren gan ohikoa den abegi ona.

Horiek izango ditu alboan burkinafasoarrak bere bizitzaren etapa berri honetan, zeinetan bizi iraupena izango duen berriro ere leitmotiva, batez ere protagonistari gainera da-

torkion mehatxu izugarriaren aurrean, ihes frenetiko bati ekin beharko baitio.

Hasieran, Toure Afrikan dagoela, segituan jarriko da hango erritmo lasaiago horretara. Baina gero erabat azkartzen da erritmoa, bai Tourerena bai nobelarena.

Esan bezala, Arretxek aurrera egin du. «Ez zaizkit trilogiak gustatzen, mania diet. Hemen da laugarren alea, eta bos-

garrena ere buruan dut. Hau Bilbon garatuko da erabat», adierazi du.

Gaztelaniazko bertsoia ere atera du Erein etxeak, honi 'Juegos de cloaca' ipini diolarik izenburu.

**ESTOLDA
JOLASAK**
JON ARRETXE

Generoa: Eleberri beltza.

Argitaletxea: Erein.

Orrialdeak: 205.

Prezioa: 18 euro.